# Animaliak eduki eta babestea arautzen duen ordenantza hasiera batez onetsita

Berako Udalak, 2005eko urriaren 19an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Animaliak eduki eta babestea arautzen duen ordenantza.

Ordenantza hori jendaurrean egon da 30 egunean, 2005eko 138.: bon.ean, azaroaren 18koan, eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratuta.

Jendaurreko epea bukaturik, ez da erreklamaziorik aurkeztu; beraz, aipatu osoko bilkuran hartutako erabakiaren 3. puntuaren arabera, behin betiko onetsitzat eman behar da.

Beran, 2006ko martxoaren 14an._Alkatea, Helena Santesteban Guelbenzu.

ERANSKINA

Berako udal mugapean animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza

I. KAPITULUA

Xedea, aplikazio eremua eta xedapen orokorrak

1. artikulua. Osasungintza eta segurtasun aldetik behar diren baldintzak ezartzea da ordenantza honen xedea, herritarrek, animaliekin batera bizitzean, bizi-kalitate egokia izan dezaten. Horrez gain, Berako udal mugapearen barnean animalien behar bezalako babesa bermatu eta animaliekin ikusteko duten industria, merkataritza edo zerbitzu jarduerak arautu nahi dira, Udalaren eskumen eta beharkizunen esparruaren barnean.

Udal esparruko xedapen orokor honen oinarriak dira, batez ere, Animaliak Babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea, Arriskutsu gerta daitezkeen Animaliak Edukitzeko Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999

# Aprobación definitiva Ordenanza reguladora sobre la tenencia y protección de los animales

El Pleno del Ayuntamiento de Bera, en sesión celebrada el día 19 de octubre de 2005, aprobó inicialmente la Ordenanza reguladora sobre la tenencia y protección de animales.

Dicha ordenanza fue expuesta al público durante 30 días, previo anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Navarra número 138, de 18 de noviembre de 2005 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Finalizado el plazo de exposición pública, no se ha presentado ninguna reclamación, por lo que, de conformidad con el punto 3 del acuerdo adoptado en el Pleno antes referenciado, esta ordenanza se entiende definitivamente aprobada.

Bera, 14 de Marzo de 2006. El Alcalde, Helena Santesteban Guelbenzu

ANEXO

Ordenanza Municipal reguladora de la tenencia y protección de animales en el Término Municipal de Bera

CAPITULO I

Objeto, ámbito de aplicación y disposiciones generales

Artículo 1. La presente Ordenanza tiene por objeto establecer las condiciones sanitarias y de seguridad necesarias para lograr una adecuada calidad de vida de la ciudadanía en su convivencia con los animales, así como garantizar la debida protección de éstos dentro del término municipal de Bera y regular las actividades industriales, comerciales o de servicios con ellos relacionadas, dentro del marco de las competencias municipales.

Esta disposición general de ámbito municipal se basa, principalmente, en la Ley Foral 7/1994, de 31 de mayo, de Protección de los Animales, Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales

Legea eta berau garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua. Orobat, osasun, segurtasun eta ingurumen arloan aplikatzen den araudia.

2. artikulua. Baimena ematen da, oro har, etxebizitza partikularretan etxeko animaliak edukitzeko, baldin osasungintza aldetik arriskurik ez bada, animaliak berak arriskugarriak ez badira, hirugarrenik gogaitzen ez bada, egokiro edukitzen badira eta bizilekuan behar diren higiene-baldintzak betetzen badira.

Animalien inguruko merkataritzako produkzio edo zerbitzuen jarduerek ordenantza honetan ezarritako baldintzak bete eta Udalaren nahitaezko baimena izan beharko dute, eta ondotik nahitaezkotzat jotzen diren zuzenketak aplikatu beharko dituzte; udal zerbitzu teknikoek noiznahi ikuskatzen ahal dute.

3. artikulua. Oro har, debekatuta daude azienden ustiategiak eta edozein azienda edo animalia haztea eta ukuiluan izatea hirigintzako sailkapen arauetan hirilurra den eremuan.

Halaber, debekatua dago, oro har, errentako animaliak, hau da, jabeari ondasunak produzitzen dizkioten animaliak eduki edo zaintzea.

4. artikulua. Lurzoru urbanizaezinean abeltegiak ezartzeko baimena eskuratu nahi baldin bada, ingurumena babesteko jarduera sailkatuen araudiari atxikiko zaio haren tramitazioa, eta betiere, arlo horretan indarra duen arautegiak kasu bakoitzerako zehazten duenaren arabera.

Abeltzaintzako ustiategi horiek Estatuan eta Foru Komunitatean jarduera horien gaineko araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, betiere garbitasun eta higiene egoera onean mantenduko dira, eta aldizka nahiz agintaritza eskudunak hala manatzen duenean, garbitzeko, desinfektatzeko eta intsektuak nahiz arratoiak hiltzeko jarduketak eginen dira. Halaber, sortutako hondakinak egunero bildu eta botako dira.

5. artikulua. Udal agintaritzak manatzen ahal du

Potencialmente Peligrosos y el Real Decreto 287/2002, de 22 de marzo que la desarrolla. Así como en la normativa aplicable en materia de sanidad, seguridad y medio ambiente.

Artículo 2. Se autoriza con carácter general la tenencia de animales domésticos en los domicilios particulares condicionada a la ausencia de riesgos sanitarios, a la falta de peligrosidad, a la inexistencia de molestias a terceros, a su correcto mantenimiento y a la existencia de adecuadas condiciones higiénicas de alojamiento.

Las actividades comerciales de producción o de servicios relacionados con los animales deberán disponer de la preceptiva autorización municipal y cumplir y mantener los requisitos establecidos en esta Ordenanza y aplicar las correcciones que posteriormente puedan estimarse indispensables, estando sujetas permanentemente a la inspección de los servicios técnicos municipales.

Artículo 3. Se prohíben con carácter general las granjas de explotación ganadera, la cría y estabulación de todo tipo de ganado o animales en la zona establecida como urbana en la normativa de clasificación urbanística.

Igualmente queda prohibida, con carácter general, la tenencia o alojamiento de animales de renta, es decir destinados a la producción de recursos para su propietario.

Artículo 4. La autorización de explotaciones pecuarias a implantar en suelo no urbanizable, requerirá su tramitación conforme a la normativa de actividades clasificadas para la protección del medio ambiente y cumpliendo las determinaciones que en cada caso prescriba la normativa vigente en la materia.

Estas explotaciones pecuarias deberán cumplir los requisitos establecidos en la normativa aplicable para estas actividades, manteniéndose permanentemente en condiciones de limpieza e higiene, realizando actuaciones periódicas de limpieza, desinfección, desinsectación y desratización y cuando se ordene por la autoridad competente, eliminándose diariamente los residuos producidos.

Artículo 5. La autoridad municipal podrá ordenar

aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten animaliak bildu eta berak adieraziko duen tokira eramateko.

la captura y retirada, al lugar que determine, de los animales que no cumplan las condiciones establecidas en los artículos anteriores.

6. artikulua. 1. Edozein animaliaren jabeek eritasun zoonosiko eta epizootikoei aurrea hartzeko arauak bete beharko dituzte, eta behartuak daude udal agintaritzak osasun arloan ezarriko dituen eskakizun guztiak betetzera.

Artículo 6. 1. Quienes posean cualquier clase de animales deberán cumplir en todo momento la normativa de prevención de enfermedades zoonósicas y epizoóticas estando igualmente obligados/as al cumplimiento de los requerimientos de carácter sanitario dictados en estas materias por las autoridades competentes.

2. Animaliendako klinika eta sendagileek zoonosiaren agerraldiaren berri baldin badute, Nafarroako Gobernuaren agintari eskudunek ezarritako osasun eginbeharrak beteko dituzte eta, ahalik agudoena, udal agintariei haren berri emanen diete.

2. El personal facultativo y clínicas veterinarias que tengan conocimiento de la existencia de brotes de zoonosis cumplimentarán las obligaciones sanitarias establecidas por las autoridades competentes del Gobierno de Navarra y lo comunicarán de inmediato a las autoridades municipales.

7. artikulua. Debekatuta dago animaliei tratu txarra ematea edo laidoztatzea. Haragitako animaliak hiltzeko, abeltzaintzako mugimenduaren gaineko xedapenak eta, betiere, animaliak babesteko araudia bete beharko dira.

Artículo 7. Se prohíbe cualquier maltrato o vejación a los animales. El sacrificio de los animales de abasto deberá cumplir las disposiciones referentes a movimiento pecuario y en cualquier caso la normativa de protección de animales.

8. artikulua. Debekatua dago eta, hortaz, udal agintaritza eskudunak zehatuko du, animaliak abandonatzea eta abandonaturik dauden animaliei jatera ematea.

Artículo 8. Queda prohibido, y será sancionado por la autoridad municipal competente, el abandono de animales y el suministrar comida a los animales que permanezcan en esta situación.

Agintariek eta herritarrek jakiten badute udal mugapean animalia abandonaturik badela, udal zerbitzuei jakinarazi beharko diete.

Las autoridades o quienes tengan conocimiento de la presencia de animales abandonados en el término municipal, lo comunicarán a los Servicios municipales.

## II. KAPITULUA

## CAPITULO II

### Lagun egiteko animaliei aplikatu beharreko berariazko araudia

### Normativa específica de aplicación en animales de compañía

9. artikulua. Ordenantza hau aplikatzetik sortzen diren ondorioetarako, "laguntasuneko animalia" da gizakiarekin bizi dena, harengandik irabaziak ateratzeko asmorik gabe.

Artículo 9. A los efectos de la aplicación de esta Ordenanza se entiende por "animal de compañía" aquél que convive con el ser humano sin que exista ánimo de lucro en su tenencia.

10. artikulua. Lagun egiteko animaliak dituztenena da haiek uneoro zaintzeko erantzukizuna. Etxebizitzetatik at libre ibiltzen diren lagun egiteko animaliak abandonatutzat hartuko dira eta udal zerbitzuek biltzen ahalko

Artículo 10. Quienes posean animales de compañía son responsables de su custodia permanente. Los animales de compañía que circulen libres por el exterior de las viviendas se considerarán abandonados, pudiendo ser retirados por los servicios municipales y siendo

dituzte. Udal agintaritzak haiekin zer egin erabakiko du jabeek, harrapatu eta hirurogeita hamabi orduko epean, erreklamatzen ez badituzte. Epe hori iragandakoan, ez dago ez erreklamatzeko ez kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik, eta bidezko zehapen administratiboa aplikatuko da.

competencia de la autoridad municipal el determinar su destino final si no son reclamados por la propiedad en el plazo de setenta y dos horas a partir de su captura sin que se produzca derecho a reclamación o indemnización posterior y aplicándose la sanción administrativa que proceda.

11. artikulua. Debekatua dago animaliak honako toki hauetan sartzea: jakiak fabrikatu, prestatu, bildu edo saltzen diren lokaletan eta horretarako erabiltzen diren ibilgailuetan; kirol nahiz kultur ikuskizun publikoak egiten diren tokietan; erabilera publikoko igerilekuetan; gizakiendako osasun etxe eta ikastetxeetan. Eraikinetako igogailuetan, berriz, sartzen ahal dira, baina animaliak daramatzaten erabiltzaileak eta ez daramatenak elkartzen badira, azken hauek igogailuan aurrenak eta bakarrik joateko eskubidea izanen dute. Animaliak daramatzatenek igogailua garbitu beharko dute, erabili ondotik beharrezkoa baldin bada.

Artículo 11. Se prohíbe la entrada de animales en los locales en que se fabriquen, manipulen, almacenen o vendan alimentos o en los vehículos destinados a este fin, en los que se celebren espectáculos públicos, deportivos y culturales, en las piscinas de uso público y en los centros de asistencia sanitaria a las personas o de enseñanza en general. Se permitirá la entrada de animales en los ascensores de inmuebles, teniendo preferencia en su uso y en el derecho a utilizar el ascensor en exclusiva las personas no acompañadas de animales cuando coincidan con otras acompañadas de animales, debiendo éstas últimas proceder a la oportuna limpieza, cuando sea necesario, después de la utilización del ascensor con animales.

Jendeari ostatu ematen dioten etxeen eta elikadura arlokoak ez diren establezimenduen jabeen esku gelditzen da animalien sarrera eta egonaldia debekatzea, baina kasu horretan egoitzaren sarreran ikusteko moduko seinalea paratu beharko dute.

Queda a criterio de quienes posean establecimientos de hospedaje y de aquellos no dedicados a la alimentación prohibir la entrada y permanencia de animales en ellos, debiendo señalar visiblemente en la entrada al local.

Debeku eta lehentasun hauetatik salbuetsiak daude ikusmen eskasia duten pertsonekin joaten diren zakur gidariak.

Se excluye de estas prohibiciones y preferencias a los perros guía que acompañan a personas con deficiencia visual.

12. artikulua. Eritasun kutsagarri baten aztarnak baldin badira eta lagun egiteko animalia batek pertsona edo animalia bati ausiki egiten badio, osasun ikuskaritzako zerbitzuei eta udal zerbitzuei jakinaraziko zaie.

Artículo 12. Será obligatoria la comunicación a los servicios de inspección sanitaria y a los servicios municipales cuando existan indicios de padecimiento contagioso y cuando una persona o un animal haya sido mordido por un animal de compañía.

13. artikulua. Udal zerbitzuek pertsonei edo beste animalia batzuei lesioak egin edo behin eta berriz haiek gogaitzen dituzten animaliak bahituko dituzte, baita honako arau hauek lehenegotik hautsi dituztenak ere, fakultatibo eskudunaren ikuskapenarekin.

Artículo 13. Los animales que causen lesiones a las personas o a otros animales, o que sean causas de molestias repetidas o reincidentes en infracciones a la presente normativa, podrán ser decomisados por los Servicios Municipales actuando bajo inspección de facultativo competente.

Lagun egiteko animalia batek, arriskugarri gerta daitezkeenen artean hasiera batez sailkatua ez

En el caso de agresión a personas o a otros animales, por parte de un perro u otro animal de

izan arren, beste animalia bati edota pertsona bati eraso egiten badio, titularra behartua dago arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia tramitatzera, eta 5 eguneko epea izanen du horretarako. Halaber, horrelakoak edukitzeko arautegi berariazkoa betetzera. Bestela, animalia bahituko da eta Udalaren esku geldituko.

compañía inicialmente no catalogado como potencialmente peligroso, su titular tiene la obligación de tramitar la licencia para la tenencia de animales potencialmente peligrosos en el plazo de 5 días, y cumplir con la normativa especifica de aquellos. En caso contrario el animal será decomisado y pasará a disposición municipal.

Zakur ausikigilearen jabea edo edukitzailea beharturik dago animaliaren datuak ematera erasotua gertatu denari edo haren legezko ordezkariei, bai eta, eskatzen badizkiote, agintari eskudunei ere. Gainera, beharturik daude animalia eurekin edukitzera, albaitaritza zerbitzu eskudunek zehazten dituzten denbora eta baldintzetan.

Asimismo, quien posea el animal agresor, tiene la obligación de facilitar los datos del animal implicado a la persona agredida o a sus representantes legales y a las autoridades competentes que lo soliciten. Además quedan obligados a retener al animal durante el periodo de tiempo y condiciones que determinen los servicios veterinarios competentes.

Debeku da horiek udal mugape guztian abandonatzea, bai eremu irekietan bai finketan edota toki itxietan.

Queda prohibido abandonarlos en cualquier punto del término municipal, tanto en espacios abiertos como en fincas o espacios cerrados.

14. artikulua. Udal mugapean hiltzen diren animaliak, haien tamaina egokia baldin bada, material irazgaitzezko poltsetan sartu eta, haiek itxi ondotik, hiri hondakin solidoak biltzeaz arduratzen diren zerbitzuei emanen zaizkie, hondakinak kudeatzeko ordenantzetan ezarritakoaren arabera. Ordenantza honen 4. artikuluak aipatzen dituen abeltzaintzako ustiategietan hiltzen diren animaliak kentzeko, lerroalde honetan ezarritakoari jarraikiko zaio edo abeltzaintzako ustiategiek bete beharreko osasun, higiene eta ingurumenaren alorretako baldintzak ezartzen dituen araudiari.

Artículo 14. Los animales muertos en el término municipal se eliminarán cuando su tamaño lo permita, previa introducción y cerrado en bolsas de material impermeable y entrega a los servicios de retirada de residuos sólidos urbanos, en la forma en que éstos lo establezcan en sus Ordenanzas de gestión. La eliminación de los animales muertos procedentes de las explotaciones pecuarias que se describen en el artículo 4 de esta ordenanza se realizará conforme a lo dispuesto en el presente párrafo o de acuerdo con la normativa que establece las condiciones higiénico sanitarias y medioambientales de las explotaciones pecuarias.

Debekatua dago artikulu honetan aipatutakoez besteko baliabiderik erabiltzea animalia hilak abandonatu edo kentzeko.

Se prohíbe el abandono o eliminación de animales muertos por otros medios diferentes a los autorizados en este artículo.

## III. KAPITULUA

## CAPITULO III

### Zakurrei aplikatu beharreko berariazko araudia

### Normativa específica sobre perros

15. artikulua. Zakurrei ere aplikatuko zaizkie animaliei aplikatzen zaizkien arau orokorrak eta, zehazkiago, lagun egiteko animalien gainekoak.

Artículo 15. Serán de aplicación a los perros las normas de carácter general que se aplican a todos los animales y concretamente a los animales de compañía.

16. artikulua. Nahitaezkoa da udal mugapean bizi diren zakur guztiak erakunde eskudunek

Artículo 16. Es obligatoria la inscripción de todos los perros residentes en el término municipal en el

| | |
|---|---|
| ezarritako zakur erroldan inskribatzea. Titulartasunaren edo helbidearen gaineko edozein gorabehera, baja edo alta gertatzen bada, jabeak erakunde eskudunei jakinarazi behar die dena delakoa, gertatu eta gehienez ere zortzi eguneko epean. | censo canino establecido por los organismos competentes. Cualquier alta, baja o cambio de domicilio o titularidad, deberá ser dada a conocer por la propiedad a los organismos competentes en el plazo máximo de ocho días después de producirse. |
| Erroldan sartzeko, legezko arauetan ezarritako epean eta baliabideekin identifikatuko dira zakurrak. | En el caso de alta de perros deberá procederse a la identificación de los perros por los medios y en el momento en que se establezca en la normativa legalmente establecida. |
| 17. artikulua. Udal mugapean bizi diren zakurren jabeen betebeharra da amorruaren kontrako txertoak zakurrei paratzea, legezko arauetan ezarritako egutegiaren arabera hasi eta berritua. | Artículo 17. Será obligación de quienes posean perros residentes en el término municipal, la vacunación antirrábica de los perros, iniciada y renovada de acuerdo con el calendario vacunal legalmente establecido. |
| Orobat, jabeen obligazioa da arlo honetako arauetan nahitaezko txerto eta tratamendu guziak paratzea. | Igualmente será de su obligación asegurar las vacunaciones y tratamientos que se establezcan como obligatorios en la normativa correspondiente. |
| Zakurrak identifikatu eta haiei txertoak paratzen dizkieten zerbitzu baimenduek jabeari emanen diote egindakoaren egiaztagiria, eta haren berri Udalari eta, hala behar izanez gero, Nafarroako Gobernuko zerbitzu eskudunei. | Los servicios autorizados que lleven a cabo la identificación y vacunación de los perros entregarán a la propiedad la documentación acreditativa de su realización que deberá a su vez ser comunicada al Ayuntamiento y en su caso a los servicios competentes del Gobierno de Navarra. |
| 18. artikulua. Bide publikoan ibiltzeko baino ez dute baimenik izanen zakurrek, behar bezala identifikatuta eta txertatuta daudela. Nahitaez, ardura duen pertsonak eraman beharko ditu, gehienez ere 2 metroko kate edo uhal sendoz lotuak. | Artículo 18. Solamente se autorizará la circulación canina en la vía pública, debiendo ir debidamente identificados y vacunados los animales. Será obligatorio que vayan sujetos a persona responsable, mediante cadena o correa resistente de longitud máxima de 2 metros. |
| Lehenago eraso egin duten zakurrek edo aldez aurretik arriskugarri gerta daitezkeenek muturrekoa eraman beharko dute nahitaez, eta pertsona arduradunak adinez nagusi beharko du izan. | En el caso de perros que hayan causado agresiones previamente, o así lo requiera su previsible peligrosidad, portarán obligatoriamente bozal, y la persona responsable deberá ser mayor de edad. |
| Debeku da animaliak zirkulatzea edo egotea haurrendako jolastokietan, ikastexeetako patioetan eta haurzaindegietan. | Se prohíbe la circulación o estancia de los animales en zonas de juegos infantiles, patios de colegios y guarderías de niños. |
| Agintaritza eskuduneko agenteek salatu eginen dute zakurrak ez badabiltza baldintza hauetan eta ordenantza honen gainerakoan ezarritakoetan, bai eta zakurrak bildu eta gorde ere, betiere | Los agentes de la autoridad competente denunciaran la circulación de los perros que no cumplan estos requisitos así como el resto de la presente ordenanza, pudiéndose proceder a su |

fakultatiboaren ikuskapenarekin.

recogida y retención bajo inspección facultativa.

19. artikulua. Aurreko artikuluak dioena aplikatuta bildutako zakurrak udaltzainek identifikatuko dituzte eta jakinaraziko diote jabeari, zeinek 72 orduko epea izanen baitu zakurra erreklamatzeko.

Artículo 19. Los perros retenidos en aplicación de lo dispuesto en el artículo anterior serán identificados por los agentes de la autoridad que comunicarán los hechos a su titular quien deberá reclamarlo en el plazo de 72 horas.

Jabeek erreklamatu gabeko zakurrak edo identifikatu ezin daitezkeenak, udal zerbitzuek, lehenbizi, udaltzainei eman edo salaketa egin zuen pertsonari eskainiko dizkiote, eta bigarrenez animalia hauek biltzeko zentroei.

En el caso de los perros no reclamados por su titular o que carezcan de la preceptiva identificación, los servicios municipales los ofrecerán, en primer lugar, a la persona que lo entregó o denunció a los agentes de la autoridad y en segundo lugar a las Sociedades Protectoras de Animales.

Artikulu honetan ezarritako edozein jarduketaren kostuak zakurraren jabeak ordaindu beharko ditu.

Serán por cuenta del titular o, en su caso, del adquiriente del perro, los costos de cualquiera de las actuaciones llevadas a cabo en los casos contemplados en este artículo.

20. artikulua. Zakurrekin dabiltzan pertsonek galarazi behar dute zakurrek kaka egin dezaten espaloi, galtzada edo berdeguneetan, eta eremu publikoko nahiz erabilera publikoa duen eremu pribatuko beste edozein elementuren gainean.

Artículo 20. Será responsabilidad de las personas que circulan con perros el impedir que éstos hagan sus deposiciones sobre aceras, calzadas, zonas verdes o ajardinadas y en los demás elementos de la vía pública o privada de uso público.

Zakurraren gidaria behartua dago haren gorozkiak bildu, eraman eta botatzera. Horretarako etxeetarako zabor biltontziak edo Udalak paratuko dituen tokiak erabiliko ditu. Zikindutako tokia garbitzea jabearen kargura dago.

Quien conduzca el perro estará obligado/a a recoger, retirar y eliminar envueltas, las deyecciones producidas, depositándolas en los contenedores de residuos domiciliarios o en los lugares que determine el Ayuntamiento, siendo responsable de la limpieza de la zona en la que se depositaron.

Agintaritzako agenteek zakurren jabeei edo gidariei eskatuko diete kaka biltzeko, eta eskatutakoari kasu egin ezean, behar den zehapena ezarriko diete.

Los agentes de la autoridad requerirán a su titular o persona que conduzca el perro para que retire las deposiciones y en el caso de no ser atendidos en su requerimiento podrán imponer la sanción correspondiente.

21. artikulua. Espresuki debekatu da animaliek erabilera publikoko ur txorrota edo iturrietatik zuzenean edan dezaten uztea.

Artículo 21. Queda expresamente prohibido consentir que los animales beban directamente de los grifos o caños de agua de las fuentes de uso público.

22. artikulua. Atari zakurrak libre uzten ahalko dira jabetza partikularreko esparruetan bakarrik, baldin eta eremu publikotik behar bezala hesituta badaude, alegia, kanpora ateratzea ezinezkoa dutela, eta jabea beharturik dago babestutako esparru horren sarbide guztietan seinaleak

Artículo 22. Los perros guardianes solamente podrán estar sueltos en el interior de recintos de propiedad particular si éstos están perfectamente cerrados a la vía pública, no pudiendo acceder al exterior y estando su titular obligado/a a advertir de la presencia del perro mediante señalización claramente visible y legible situada en todos los

paratzera, argi ikusteko lekuan eta irakurtzeko moduan, zakurra bertan dela ohartarazteko, 2. artikuluan aipatzen diren eragozpenak inola ere gerta ez daitezen.

accesos al recinto vigilado, no pudiéndose dar, en ningún caso, las situaciones molestas a que se refiere el artículo 2.

23. artikulua. Debeku da etxebizitzetako komunitateko patioetan eta etxeetako jabetza komuneko terraza edo bestelako lekuetan zakurrak sartzea.

Artículo 23. Se prohíbe la estancia de perros en los patios de comunidad de viviendas y en cualquier terraza o espacio de propiedad común de los inmuebles.

Halaberean, debeku da norberaren balkoiak, terrazak etab. erabiltzea, baldin eta gorozki eta hondakinen bidez handik kutsatu edo zikintzen badira azpiko etxebizitzak edo eremu publikoa.

Asimismo la utilización de balcones, terrazas, etc, de las propias viviendas cuando desde éstas contaminen o manchen los pisos inferiores o la vía pública con sus deyecciones y detritus.

24. artikulua. Ikusmen urriko pertsonen "gidazakurtzat" hartuko dira, Itsuen Erakunde Nazionalak aitorturiko zentro nazional edo atzerrikoetan, ikusmen urriko pertsonei lagun egin, eta haiek gidatu eta laguntzeko irakatsiak izan direla egiaztatzen direnak.

Artículo 24. Tendrá la condición de perro-guía de personas con deficiencia visual aquél del que se acredite haber sido adiestrado para el acompañamiento, conducción y auxilio de dichas personas en centros nacionales o extranjeros reconocidos como tales por la Organización Nacional de Ciegos.

Gidazakurrek, ikusmen urriko pertsonei lagun egiten joaten direnean, agerian eraman beharko dute zer diren adierazteko seinale ofizial berezia.

Los perros-guía, cuando vayan acompañando a estas personas, deberán llevar en lugar visible el distintivo especial oficialmente establecido que indica su condición.

Gidazakurra bere lana egiteko ezgauzatzat hartuko da eri dagoela ikusten bada, oldarkor ageri bada, behar bezain garbi ez badago eta, oro har, pertsonentzat arriskugarri izan daitekeela uste bada.

Incapacita al perro-guía para su función el presentar signos de enfermedad, el mostrar agresividad, la falta de aseo y, en general, el presumible riesgo para las personas.

Ikusmen urriko pertsona arduratuko da animalia behar bezala porta dadin, eta berarekin eramanen du gidazakurraren egoera ona egiaztatzen duen agiria.

Estas personas serán responsables del comportamiento adecuado del animal y serán portadoras del documento acreditativo de las correctas condiciones de su perro guía.

## IV. KAPITULUA

## Etxeko animaliei lotutako jarduerak

## CAPITULO IV

## Actividades relacionadas con los animales domésticos

25. artikulua. Hauek dira lagun egiteko animaliei lotutako jarduerak, ordenantza honen arabera bete beharrekoak: haztegiak, gordelekuak, saldu-erosteko dendak, apaindegiak, kontsultategiak, animaliendako klinika eta ospitaleak eta hilerriak, eta aipatu horietako batzuekin batera egiten diren jarduerak edo beren funtzionamenduan animaliak

Artículo 25. Constituyen actividades relacionadas con los animales de compañía y sujetos a la presente ordenanza los siguientes: criaderos, guarderías, comercios de compra y venta, servicios de acicalamiento, consultorios, clínicas y hospitales veterinarios, cementerios de animales y todas aquellas actividades que simultaneen el ejercicio de algunas de las anteriormente

erabiltzen dituztenak.

reseñadas o las que cuenten con la presencia de animales para su funcionamiento.

Jarduera hauek, baimenari, funtzionamenduari eta ikuskapenei dagokienez, jarduera sailkatuen gainean indarrean dagoen araudiari atxikirik daude, gainerako xedapen aplikagarriak betetzea deusetan ukatu gabe.

Estas actividades quedan sujetas en su régimen de autorización, funcionamiento e inspección a la normativa vigente sobre actividades clasificadas sin perjuicio del cumplimiento de las demás disposiciones aplicables.

Lizentziak ikusteko moduan egon beharko du jarduera egiten den tokian.

La licencia estará expuesta, de modo visible en la dependencia principal de la actividad.

26. artikulua. Jarduera lizentzia emateko, eta horretarako jarduera sailkatuei buruzko Erregelamenduak ezarritakoa ezertan ukitu gabe, nahitaezko baldintza da eskabideari txosten bat eranstea eta hartan honako hauek zehaztea:

Artículo 26. Para la concesión de la licencia de actividad, y con independencia de lo preceptuado para ello en la normativa vigente de actividades clasificadas, será requisito indispensable que a la solicitud se adjunte una memoria donde se haga constar.

a) Jardueraren deskribapena eta non egiten den.

a) Denominación de la actividad y ubicación de la misma.

b) Titularraren izena, helbidea eta telefonoa.

b) Nombre, dirección y teléfono de la persona titular.

c) Zuzendaritza Teknikoko arduradunaren izena, helbidea eta telefonoa.

c) Nombre, dirección y teléfono de la persona responsable de la Dirección Técnica.

d) Eskaini gogo dituen zerbitzuak.

d) Servicios que se propone prestar.

e) Instalazio eta egoitzen zerrenda eta deskripzioa, eta bertako planoak.

e) Relación y descripción de las instalaciones y dependencias de que disponga y plano de las mismas.

f) Aireztapen sistema. Ezaugarriak eta banaketaren planoa.

f) Sistema de ventilación, características y plano de distribución.

g) Nola garbitu eta desinfektatzen diren animaliekin erabiltzen diren lokalak, materialak eta tresnak, baita animaliak garraiatzeko ibilgailuak ere, halakorik balitz.

g) Medios para la limpieza y desinsectación de locales, materiales y utensilios que puedan estar en contacto con los animales y, en su caso, de los vehículos utilizados para su transporte.

h) Animalien haztegiak, zaindegiak eta salerosketako jarduerak direnean, kontratu-agiri bat eskatuko da, jardueraren eskatzaileak eta Foru Komunitatean diharduen albaitari batek sinatua. Hartan ezarri beharko da albaitaria arduratuko dela higieneaz eta abere-osasunaz, zoonosiari dagokionean eta jarduera jakin horretan animaliaren babesari buruz indarra duen legerian agindutakoa bete dadin. Aipatu kontratua

h) Para actividades de criadero, guardería y compra-venta de animales, se exigirá documento-contrato suscrito entre quien solicite la autorización y un veterinario/a con ejercicio en la Comunidad Foral en el que se haga constar que se responsabiliza del cumplimiento de lo preceptuado en materia de higiene y sanidad pecuaria, zoonosis y la legislación vigente sobre protección animal para dicha actividad. En caso de rescisión del contrato, se deberá proceder a la

deuseztatzen bada, jardueraren titularra beharturik dago beste albaitari bat kontratatzera, hamabost eguneko epearen barnean, eta hala egin duela Udalaren osasun zerbitzuei jakinaraztera.

contratación de un nuevo facultativo y a la comunicación del hecho a los servicios sanitarios municipales, en el plazo de quince días.

27. artikulua. Jarduera hauek merkataritzako lokalei aplikatzen zaizkien baldintza higieniko-sanitarioak betetzeaz gainera, ondoko hauek ere bete beharko dituzte:

Artículo 27. Estas actividades deberán cumplir con los requisitos higiénico sanitarios de aplicación en locales comerciales y además las siguientes condiciones:

a) Horretarako bakarrik prestatutako eraikin bakartuetan kokatuko dira, saldu-erosteko jarduerak, apainketa zerbitzuak eta animaliendako kontsultategiak edo klinikak izan ezik, horiek behe solairu hutseko lokaletan bakarrik kokatzen ahal baitira.

a) Estarán ubicados en edificios independientes dedicados exclusivamente a este fin, excepto en las actividades dedicadas únicamente a compra-venta o servicios de acicalamiento y consultorios o clínicas de animales, que sólo podrán desarrollarse en locales situados en planta baja.

b) Egoitzetako lurzoru eta paretetako materialak, erabilera administratiboa besterik ez duten geletakoak salbu, gogorrak, irazgaitzak eta garbitzeko zein desinfektatzeko errazak izanen dira.

b) Los suelos y paredes de las dependencias, excepto las de uso exclusivamente administrativo, serán de material resistente, impermeables y de fácil limpieza y desinfección.

c) Lurzoru eta pareten elkarguneak borobilduak edo biselatuak izanen dira. Aitzineko lerroaldean aipatzen diren geletako zola guztiek behar den drenajea eta/edo hondakin urak husteko sistema izanen dute.

c) Los encuentros entre paredes y de estas con los suelos serán redondeados o en forma de bisel; la totalidad de los suelos de las dependencias referidas en el párrafo anterior se hallaran dotados del adecuado sistema de drenaje o sistema de evacuación de aguas residuales.

d) Jendeak edateko ura, beroa eta hotza, eta aireztapen sistema egokia eta nahikoa izanen dituzte.

d) Dispondrán de agua de consumo humano caliente y fría y sistema de ventilación adecuado y suficiente.

e) Aldizka, garbiketa eta desinfekzio lanak eta insektuak eta arratoiak hiltzekoak eginen dira, bai instalazioetan bai tresna eta ibilgailuetan. Horiek sistematikoki eta aldizka eginen dira, betiere jardueraren beharren arabera. Urtean behin bederen, lokalean intsektuak eta arratoiak hiltzeko lanak eginen ditu ofizialki baimenduta dagoen enpresa batek.

e) Se realizarán labores de limpieza, desinfección, desinsectación y desratización de la instalación, utensilios y vehículos, sistemáticas, periódicas y con la frecuencia que aconsejen las necesidades de la actividad. Al menos una vez al año, el local será objeto de desinfección y desinsectación por empresa oficialmente autorizada.

f) Udalaren baimenean lokal horietan batera egon daitezkeen animalien gehieneko kopurua agertuko da, zein den lokalaren edukia.

f) La autorización municipal especificará el número máximo de animales que simultáneamente pueden albergar estos locales y que estará condicionado por la capacidad del local.

g) Beheko solairuetako lokalek behar bezalako intsonorizazioa izanen dute, indarrean den

g) Los locales, situados en planta baja, estarán debidamente insonorizados de conformidad con la

araudiari jarraituz.

h) Jardueraren ondorioz sortzen diren hondakin solidoak egunero bildu eta eramanen dira, hondakin solidoak kudeatzeko ordenantzak ezarri bezalaxe.

i) Jardueretan arriskugarri gerta daitezkeen animaliak badaude, animalia horientzat behar diren neurriak hartuko dituzte, behin ere libre utzi gabe, ezbeharrik suerta ez dadin.

j) Establezimenduaren kanpoko aldean animaliarik ez egoteko, behar den tamainako itxaron gela izanen da nahitaez, horrelakorik behar duten jardueretan.

k) Edozein eritasun zoonosiko sortuz gero, berehala jakinaraziko zaio Udalean eskumena duen osasun agintaritzari.

28. artikulua. Lagun egiteko animaliak hazteko tokitzat hartuko dira espezie bereko lau eme baino gehiago dauzkatenak, baldin eta haien xede nagusia ugalketa eta, horren ondotik, salmenta bada.

Jarduera horietan erregistro liburua izan beharko dute eta bertan honako hauek zehaztuko dira: animalien espeziea eta arraza, etorkia, inportazio baimena, sarrera eta irteera datak, animalien zertarakoa, bai eta legezko xedapenetan eskatzen diren bestelako guztiak ere.

Zenbait gela izanen dituzte, honako hauetarako gutxienez: umatzeko gela, ugaltzeko gela, ariketak egiteko leku irekia eta egoteko tokia.

29. artikulua. Lagun egiteko animalien zaindegitzat hartuko dira, ordenantza honen ondorioetarako, animaliak hartu, ostatu eman, mantenuaz arduratu eta zaintzeko zerbitzuak halako denbora batez ematen dituzten establezimenduak.

Jarduera horietan erregistro liburua izan beharko dute eta bertan honako hauek zehaztuko dira: animalien espeziea eta arraza, sarrera eta irteera datak, jabe edo edukitzailearen izena eta helbidea,

normativa vigente.

h) Los residuos sólidos producidos en la actividad se evacuarán diariamente en la forma que se establezca en la Ordenanza de gestión de residuos sólidos.

i) Las actividades que dispongan de animales potencialmente peligrosos los mantendrán con las debidas precauciones y nunca en libertad, a fin de evitar accidentes.

j) Dispondrán de salas de espera de adecuadas dimensiones, a fin de evitar la presencia de animales en el exterior del establecimiento, aquellas actividades que por sus características así lo requieran.

k) Se notificará de inmediato a la autoridad municipal y sanitaria competente la aparición de cualquier enfermedad zoonósica.

Artículo 28. Tendrán la consideración de criaderos de animales de compañía los establecimientos que alberguen más de cuatro hembras de la misma especie y cuya finalidad principal sea la reproducción y ulterior comercialización de los mismos.

Estas actividades contarán con un libro de registro en el que se detallaran: la especie, raza, origen, permiso de importación, fecha de entrada, salida y destino de los animales y cualquier otro requisito que las disposiciones legales puedan exigirle.

Dispondrán, al menos, de las siguientes dependencias específicas: Sala de partos, sala de cría, patio de ejercicio y zona de estancia.

Artículo 29. Se considerarán guarderías de animales de compañía a efectos de esta ordenanza los establecimientos que presten los servicios de recepción, alojamiento, manutención y cuidado de animales por un periodo de tiempo determinado.

Estas actividades contarán con un Libro de Registro en el que se detallarán: la especie y raza de los animales, fecha de entrada, salida, nombre y domicilio de la persona propietaria o poseedora y cualquier otro requisito que las disposiciones

bai eta legezko xedapenetan eskatzen diren bestelako guztiak ere.

legales puedan exigir.

Zenbait muntadura izanen dituzte, honako hauetarako gutxienez: eri dauden animaliak isolatzeko gelak, ariketak egiteko lekua, aterpe aldea eta sukaldea.

Dispondrán, al menos, de las siguientes dependencias especificas: Dependencia para aislamiento de animales enfermos, zona de ejercicio, zona de albergue y cocina.

Establezimenduan animaliarik onartzeko, haren osasun agiriak aurkeztu beharko dira, eguneraturik.

La aceptación de animales en el establecimiento quedará condicionada a la presentación de la documentación sanitaria de identificación del animal actualizada.

30. artikulua. Lagun egiteko animaliak salerosteko establezimendutzat hartuko dira beren jarduera nagusia animaliak saldu edo erostea dutenak.

Artículo 30. Se consideran establecimientos de compra-venta de animales de compañía aquellos cuya actividad principal es la compra o venta de animales.

Lokalak erakuslekua izan beharko du eta hotz-beroa erregulatzeko modua.

El local contará con zona de exposición y posibilidad de regulación de la temperatura.

Jarduera horietan erregistro liburua izan beharko dute eta bertan honako hauek zehaztuko dira: animalien etorkia, espeziea eta arraza, haien adina eta sexua, sarrera eta irteera datak, erostunaren izena eta helbidea, bai eta legezko xedapenetan eskatzen diren bestelako guztiak ere. Haztegietatik zuzenean ez datozen animaliak hartzeko, animaliaren osasun agiriak erregistratuko dira.

Estas actividades contarán con un Libro de Registro en el que se detallarán: procedencia, especie, raza, edad y sexo de los animales, fecha de entrada, salida, nombre y domicilio del comprador/a y cualquier otro requisito que las disposiciones legales puedan exigir. En caso de adquisición de perros que no procedan directamente de criaderos, se registrará la documentación sanitaria de identificación del animal.

Animaliak saltzen direnean erostunari egiaztagiri bat emanen zaio, eta hartan zehaztuko dira animaliaren arraza, adina eta etorkia, baita osasun agiriak ere, behar direnean.

La venta de animales irá acompañada de la entrega al comprador/a de un documento acreditativo con detalle expreso de raza, edad, procedencia y documentación sanitaria del animal si procede.

31. artikulua. Animaliak apaintzeko establezimendutzat hartuko dira, haiek garbitu eta ikuzten eta haiei ilea apaintzen eta estetika zerbitzua ematen dihardutenak. Lanerako tresna egokiak izan beharko dituzte, baita ur hotza eta beroa ere.

Artículo 31. Se consideran establecimientos dedicados a servicios de acicalamiento aquellos cuya actividad principal consiste en la prestación de servicios propios de limpieza, lavado, peluquería y estética del animal. Dispondrán de adecuadas herramientas de trabajo y agua caliente.

32. artikulua. Ordenantza honi dagokionez, albaitaritzako kontsultategi, klinika edo ospitaletzat hartuko dira fakultatibo espezialistek animalien diagnostikoa egiteko eta haiek tratatzeko establezimenduak, zuzendaritza teknikoa albaitari profesionalen esku baldin bada.

Artículo 32. A efectos de esta Ordenanza se definen como consultorios, clínicas, u hospitales veterinarios aquellos establecimientos destinados al diagnóstico y tratamiento de animales por facultativos especialistas y cuya dirección técnica será ejercitada por profesional veterinario.

Jarduera hauetarako lokalek, nahitaez izan beharko dituzte honako gela hauek, gutxienez:

_Kontsultategiak: harrera gela, kontsulta gela eta zenbait sendaketa lanetarakoa.
_Klinikak: itxaron gela, kontsulta gela, ebakuntzetarako gela, instalazio erradiologikoa, laborategia eta suspertze lanetarakoa.

_Ospitaleak: klinikarako bidezkoak direnak eta etengabeko zainketarako ospitaleratze gela. Jarduera honetan, arreta zerbitzuak gau eta egunekoa izan beharko du.

33. artikulua. Hilotzak edo hildako animalien hondarrak lurperatzeko zerbitzua ematen duten instalazioak edo eremuak dira animalien hilerriak.

Haien kokapena hirigintzako planeamendurako arauei egokituko zaie eta urak hartuko ez dituen drainatze errazeko lurretan paratuko dira.

Hozkailuak edo izozkailuak izanen dituzte, hilotzak edo hondarrak lurperatu bitartean gordetzeko.

Lurperatzea zuzenean lurrean egiten baldin bada, kare biziko ohatze bat prestatuko da, hilotza edo hondarrak haren gainean utzi eta, berriz ere, kare biziz estaliko dira, hori dena lur azaletik 65 cm-tara bederen.

V. KAPITULUA

Animaliekin ikusteko duten beste jarduera batzuk

34. artikulua. Kapitulu honetan sartzen dira lehiaketak, erakusketak, agerraldiak eta antzekoak egitea xedetzat daukaten jarduerak, denbora baterakoak edo iraunkorrak izan, bai leku itxietan bai leku irekietan egiten direnak.

35. artikulua. Ezarri gogo den jarduera iraunkorra bada, lokal itxietan nahiz aire zabalean izan, Udalaren lizentzia izan beharko du, eta jarduera sailkatuen gainean indarra duen araudiaren arabera tramitatuko da.

Los locales destinados a estas actividades contarán obligatoriamente con las siguientes dependencias mínimas:

_Consultorios: Sala de recepción, sala de consulta y pequeñas intervenciones.
_Clínicas: Sala de espera, sala de consulta, sala específica para intervenciones quirúrgicas, instalación radiológica, laboratorio y posibilidades de reanimación.
_Hospitales: Las indicadas para la clínica más sala de hospitalización de vigilancia permanente. En esta actividad el servicio de atención deberá ser continuado.

Artículo 33. Los cementerios de animales son las instalaciones o espacios destinados a la prestación de servicio de enterramiento de cadáveres o restos de animales muertos.

En cuanto a su ubicación se adecuará a las normas de planeamiento urbanístico y en terrenos no anegables de fácil drenaje.

Dispondrán de depósitos refrigerados o congeladores para la conservación de los restos o cadáveres hasta su enterramiento.

En el caso de que el enterramiento se realice directamente sobre tierra, el cadáver o restos se depositarán sobre cal viva cubiertos con una capa del mismo producto y al menos a 65 cm de la superficie.

CAPITULO V

Otras actividades relacionadas con animales

Artículo 34. Se integran en este capítulo todas aquellas actividades cuyo objeto sea la realización de concursos, exposiciones, exhibiciones o similares, con carácter temporal o permanente, tanto en locales cerrados como en espacios abiertos.

Artículo 35. Todas aquellas actividades que vayan a ser instaladas con carácter permanente, tanto en locales cerrados como en espacios abiertos, deberán disponer para ello de licencia de actividad que será tramitada según la normativa vigente sobre actividades clasificadas.

Aipatu lizentzia emateko, eta kontuan hartu gabe jarduera sailkatuen erregelamenduan agindutakoa, beharrezkoa da ordenantza honetako 26. eta 27. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzea.

36. artikulua. Aldi baterako egiten diren jarduerek, hala leku itxietan nola leku irekietan, baimena izan beharko dute, Alkatetzak horretarako emana.

Baimen hori eskuratzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

_Jardueraren deskribapena eta non egiten den.

_Helbide soziala eta eskatzailearen IFZ.
_Eskatzailearen izena, helbidea eta telefonoa.
_Jarduera zenbat luzatuko den.
_Animalien kopurua eta espezieak.
_Erantzukizun zibileko asegurua, jarduerak irauten duen denborarako.
_Instalazioen onarpenari eta erregistroari buruzko egiaztagiria, erakunde eskudunak emana.

_Instalazio elektrikoaren buletina, behin-behineko loturarako.

37. artikulua. Denbora baterako diren jardueren kasuan, funtzionatzen hasteko, Udalaren osasun zerbitzuei honako hauek aurkeztu beharko zaizkie:

_Teknikari eskudunak emandako ziurtagiria, dagokion lanbide elkargoak ikus-onetsia, instalazioak egoki muntatu direla dioena.
_Kasuan kasuko dokumentazioa (etorki gida, osasun kartila, C.I.T.E.S., animaliaren identifikaziorako txartela, etab.), jardueran dauden animaliei buruzkoa.
_Enpresa edo erakunde antolatzaileak jendeak edateko ur-hartunea eta ur beltzen hustubidea izanen ditu, behar bezala jarduteko horren beharra daukaten jardueraren osagai guztietan. Jarduteko baimendutako denboran okupatzen diren muntadura eta/edo guneak garbitzeko zerbitzuak ere ez dira faltako, eta bere jarduna bukatutakoan zehatz-mehatz garbitu eta desinfektatu beharko ditu.

Para la concesión de dicha licencia y con independencia de lo preceptuado para ello en la normativa vigente de actividades clasificadas, será preciso cumplir con los requisitos señalados en los artículos 26 y 27 de la presente ordenanza.

Artículo 36. Las actividades que vayan a realizarse con carácter temporal, tanto en locales cerrados como en espacios abiertos, deberán contar con la correspondiente autorización de Alcaldía para ello.

A la solicitud de la referida autorización, deberá aportarse la siguiente documentación:

_Descripción de la actividad y ubicación de la misma.
_Razón social y NIF del solicitante.
_Nombre, dirección y teléfono del solicitante.
_Tiempo para el que solicita la actividad.
_Número u especies de animales concurrentes.
_Seguro de responsabilidad civil por el tiempo que dure la actividad.
_Certificado de aprobación y registro de las instalaciones expedido por el organismo competente.
_Boletín de instalación eléctrica para enganche provisional.

Artículo 37. Las actividades ejercidas con carácter temporal, para iniciar su funcionamiento, deberán aportar a los servicios sanitarios municipales:

_Certificado expedido por técnico competente, visado por el Colegio Profesional correspondiente, del adecuado montaje de las instalaciones.
_Documentación exigible en cada caso (guía de origen, Cartilla Sanitaria, C.I.T.E.S., Tarjeta de Identificación del Animal, etc) de los animales presentes en la actividad.
_La empresa o entidad organizadora contará con toma de agua de consumo humano y desagüe a red de fecales en todos los componentes de la actividad que así lo requieran para su adecuado funcionamiento. Deberá proveer también los servicios de limpieza de las instalaciones y/o espacios ocupados durante el periodo autorizado de funcionamiento, procediendo a su meticulosa limpieza y desinfección una vez finalizado el mismo.

VI. KAPITULUA

Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak

38. artikulua. Definizioa.

1. Oro har, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak dira, berez basa izanik, etxeko gisa erabiliz, edo lagun egiteko, pertsonei nahiz beste animalia batzuei lesioak eragin edo heriotza eman diezaieketen espezie edo arrazatakoak, eta ondasunei kalte egiten ahal dietenak, erasokorrak izan ala ez.

2. Etxeko animaliak edo lagun egitekoak arriskugarri gerta daitezkeen animaliatzat hartuko dira baldin eta erregelamendu bidez halakotzat hartuak badira (287/2002 ED, martxoaren 22koa), eta bereziki honelako zakurrak: arraza jakin batekoak izanik, beren joera erasokorragatik, tamainagatik edo masailezurren indarragatik, pertsonei nahiz beste animalia batzuei lesioak eragin edo heriotza emateko eta ondasunei kalte egiteko gai direnak.

3. Arriskugarriak gerta daitezkeen zakurrak dira ondoko arrazetakoak eta beren gurutzatzeak:

_Pit bull terrierra
_Staffordshire bull terrierra
_American Staffordshire terrierra.
_Rottweilerra
_Dogo argentinarra
_Fila brasildarra
_Tosa inua
_Akita inua
_Mallorkako harraparia
_Kanarietako harraparia
_Mastin napolitarra
_Bull mastiffa
_Dobermanna
_Bordeleko dogoa

Ondoko ezaugarrietako guztiak edo gehienak dituztenak: gihar sendoak, itxuraz indartsua, mardula, eite atletikoa, zalutasuna, bizkortasuna eta erresistentzia; aiurri handikoa eta adoretsua; ile motza; 60 eta 80 zentimetroen arteko perimetro torazikoa, 50 eta 70 zentimetroen arteko bizkar-gurutzea eta 20 kg-tik goitiko pisua;

CAPITULO VI

Animales potencialmente peligrosos

Artículo 38. Definición.

1. Con carácter genérico, se consideran animales potencialmente peligrosos todos los que, perteneciendo a la fauna salvaje, siendo utilizados como animales domésticos, o de compañía, con independencia de su agresividad, pertenecen a especies o razas que tengan capacidad de causar la muerte o lesiones a las personas o a otros animales y daños a las cosas.

2.También tendrán la calificación de potencialmente peligrosos, los animales domésticos o de compañía que reglamentariamente se determinen (RD 287/2002, de 22 de marzo), en particular, los pertenecientes a la especie canina, incluidos dentro de una tipología racial, que por su carácter agresivo, tamaño o potencia de mandíbula tengan capacidad de causar la muerte o lesiones a las personas o a otros animales y daños a las cosas.

3. Son perros potencialmente peligrosos los que pertenezcan a las razas, y sus cruces, siguientes:

_Pit Bull Terrier
_Staffordshire Bull Terrier
_American Staffodshire Terrier
_Rottweiler
_Dogo Argentino
_Fila Brasileiro
_Tosa Inu
_Akita Inu
_Presa Mallorquín
_Presa Canario
_Mastín Napolitano
_Bull Mastiff
_Dobermann
_Dogo de Burdeos

Aquellos cuyas características se correspondan con todas o la mayoría de las siguientes: fuerte musculatura, aspecto poderoso, robusto, configuración atlética, agilidad, vigor y resistencia; marcado carácter y gran valor; pelo corto; perímetro torácico comprendido entre 60 y 80 centímetros, altura a la cruz entre 50 y 70 centímetros y peso superior a 20 kg; cabeza

tamaina handiko burua, kuboidea, mardula, garezur zabal eta handia, eta masail gihartsu eta atereak; masailezur handi eta sendoak; aho mardula, zabala eta sakona; lepo zabala, gihartsua eta motza; bular sendoa, zabala, handia eta sakona; saihets makotuak eta bizkar gihartsu eta laburra; aurreko gorputz-adarrak, paraleloak, zuzenak eta mardulak; atzeko gorputz-adarrak, berriz, oso gihartsuak, hanka luze samarrak, angelua txikia egiten dutenak.

voluminosa, cuboide, robusta, con cráneo ancho y grande y mejillas musculosas y abombadas; mandíbulas grandes y fuertes, boca robusta, ancha y profunda, cuello ancho, musculoso y corto; pecho macizo, ancho, grande, profundo, costillas arqueadas y lomo musculado y corto; y extremidades anteriores paralelas, rectas y robustas y extremidades posteriores muy musculosas, con patas relativamente largas formando un ángulo moderado

4. Nolanahi den, aurreko lerroaldekoak izan gabe ere, arriskugarriak gerta daitezkeen zakurren artean sartuko dira aiurri erasokor handia dutenak edo pertsonak nahiz beste animaliak eraso dituztenak. Halakoetan ustezko arriskugarritasun hori agintaritza eskudunak ikusi beharko du, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, eta horrela deklaratu ahalko da animaliak pertsonaren bat edo beste animaliaren bat erasotzen duen unetik beretik.

4. En todo caso, aunque no se encuentren incluidos en el aparado anterior, serán considerados perros potencialmente peligrosos aquellos animales de la especie canina que manifiesten un carácter marcadamente agresivo o que hayan protagonizado agresiones a personas o a otros animales. En estos supuestos la potencial peligrosidad habrá de ser apreciada por la autoridad competente de oficio o a instancia de parte, lo que podrá declararse desde el momento en que el animal manifieste un episodio de agresión a personas o a otros animales.

5. Edozein espezietakoak izanik, eraso eta defentsarako erakutsi edo heziak izan diren animaliak.

5. Los animales de cualquier especie que hayan sido especialmente adiestrados o entrenados para el ataque o densa personal.

39. artikulua. Lizentzia.

Artículo 39. Licencia.

1. Ordenantza honetan oinarriturik, arriskugarri gerta daitezkeenen artean sartzen den animalia baten jabeak edo edukitzaileak lizentzia berezia izan beharko du. Animalia eskuratu baino lehen eskatuko da lizentzia, aurreko artikuluko 1, 2, 3 eta 5. ataletako kasuetan, eta 4. ataleko kasuan, berriz, 5 eguneko epearen barrenean, animaliak pertsonaren bati eraso egin dionetik hasita.

1. Quienes posean cualquier animal clasificado como potencialmente peligroso al amparo de esta ordenanza requerirán una licencia específica. La licencia se solicitará previamente a su adquisición en el caso de los apartados 1, 2, 3 y 5 del articulo anterior y en el caso del apartado 4, en el plazo de 5 días desde que se haya producido un agresión a personas por el animal.

2. Lizentzia eskuratzeko, honako baldintza hauek beharko dira:

2. Para obtener dicha licencia se precisaran los siguientes requisitos:

a) Adinez nagusi izatea eta ez egotea ezindurik animalia behar bezala zaintzeko.

a) Ser mayor de edad y no estar incapacitado/a para proporcionar los cuidados necesarios al animal.

b) Ez izatea inoiz kondenatua honako delitu hauetakoren batengatik: homizidioa, lesioak, torturak, askatasunaren edo osotasun moralaren aurkakoak, sexu-askatasunaren eta osasun publikoaren aurkakoak, lotura talde armatu

b) No haber sido condenado/a por delitos de homicidio, lesiones, torturas, contra la libertad o contra la integridad moral, la libertad sexual y la salud pública, de asociación con banda armada o de narcotráfico, así como no estar privado/a por resolución judicial del derecho a la tenencia de

batekin edo droga salerosketarekin. Ildo beretik, arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko eskubideaz gabetua ez egotea epaile baten ebazpenagatik.

animales potencialmente peligrosos.

c) Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzearen inguruko arau-hauste larri edo oso larriengatik zehatua ez izana, lizentzia aldi baterako eteteko zehapena izan ezik, hura osoki bete bada.

c) No haber sido sancionado/a por infracciones graves o muy graves en materia de tenencia de animales potencialmente peligrosos, salvo la sanción de suspensión temporal de la licencia si esta ha sido cumplida íntegramente.

d) Ahalmen fisikoaren eta gaitasun psikologikoaren agiria, arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko.

d) Certificados de disponer la capacidad física y aptitud psicológica para la tenencia de animales potencialmente peligrosos.

e) Egiaztatzea erantzukizun zibileko aseguru bat egin izana, animaliek hirugarrenei egiten ahal dizkieten kalteengatik, bederen urtebeteko iraupena eta gutienez ere ehun eta hogei mila euroko zenbatekoa duena.

e) Acreditación de haber formalizado un seguro de responsabilidad civil por daños a terceros que puedan ser causados por sus animales por una cuantía mínima no inferior a ciento ochenta mil euros y con una vigencia al menos anual.

f) Kasuan kasuko ordenantzetan onartzen den udal tasa ordaintzea.

f) Abonar la tasa municipal que se apruebe en las correspondientes ordenanzas.

3. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien jabeek lizentzia eskatu beharko dute Beran bizi badira edo merkataritza nahiz trebakuntza udalerri honetan egiten bada. Era berean, lizentzia hau eskatu beharko dute animalia arriskugarrien jabe edo edukitzaileek, animaliak hiru hilabetez bederen Beran egon behar badu.

3. Están obligados/as a solicitar la licencia quienes posean animales potencialmente peligrosos en el caso de que vivan en Bera, o cuando la actividad de comercio o adiestramiento se realice en este municipio. Igualmente deberán solicitar esta licencia quienes posean animales peligrosos cuando el animal vaya a permanecer en Bera al menos tres meses.

Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabe edo edukitzaileek betebehar hori izatea alde batera utzirik, edozein herritarrek jakinarazi ahalko dio Berako Udalari mota honetako animaliak dituzten pertsonak badirela, Udalak legeen arabera bidezkoak diren urratsak eman ditzan.

Esta obligación de quienes posean animales potencialmente peligrosos se establece sin perjuicio de la facultad de la ciudadanía de comunicar al Ayuntamiento de Bera la existencia de personas que tengan en propiedad o posean este tipo de animales a fin de que el Ayuntamiento lleve a cabo las acciones que legalmente sean oportunas.

4. Lizentziak 5 urteko iraupena izanen du, eta indarrik ez galtzeko beharrezkoa da hura eskuratzeko eskatu ziren betebeharrei eustea denbora horretan guztian.

4. La licencia tendrá una vigencia de 5 años y estará condicionada en todo caso al mantenimiento de los requisitos para obtenerla.

Aitzinekoa ukatu gabe, Udalak egiaztatzen ahalko du, lizentziak irauten duen bitartean, ofizioz edo salaketaren ondorioz, arriskugarri gerta daitekeen animaliaren jabeak edo edukitzaileak eusten ote dien lizentzia eskuratzeko betebeharrei, eta,

No obstante lo anterior, el Ayuntamiento puede comprobar, de oficio o por denuncia, durante la vigencia de la licencia que cualquier propietario/a o tenedor de un animal potencialmente peligroso mantiene los requisitos para obtener la licencia, y,

ikuskapena egin ondotik, egiaztatzen bada arriskugarri gerta daitekeen animaliaren jabe edo edukitzaileak ez duela betetzen baldintzetakoren bat, ulertuko da ez duela lizentziarik animalia edukitzeko eta hasiera emanen zaie behar diren ekintzei.

40. artikulua. Arriskutsu gerta daitezkeen animalien jabe, hazle eta edukitzaileen betebeharrak.

Arriskutsu gerta daitezkeen animalien jabe, hazle eta edukitzaileek honako betebehar hauek dituzte:

a) Arriskugarri gerta daitekeen animalia edukitzeko lizentzia eskuratzea, ordenantza honetan zehazten den epean.

b) Ordenantza honetako 44. artikuluko 2. atalean zehazten den lizentzia eskuratzeko baldintzak berdin mantentzea eta horietakoren bat galtzen bada, berehala jakitera ematea.

c) Erregistroan sartzea arriskugarri gerta daitezkeen animalia guztiak, ordenantza honetan ezartzen den epearen barrenean.

d) Udalari jakinaraztea animaliaren lapurreta edo galera, gertatzen denetik bost eguneko epean, bai eta hura beste inori utzi edo saldu zaiola ere, edo hil egin dela, hamabost eguneko epean, identifikaziorako datuak emanda.

e) Animalia eskuratzeko unean, beste jabe baten izenean zentsaturik baldin badago, jabe berriak, eskuratu aurretik, arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziaren jabe izan beharko du, eta Udalari jakinarazi beharko dio, eskuratzen duenetik hasi eta bost eguneko epean, gehienez ere, animaliaren jabe aldaketa gertatu dela.

f) Erregistroko datuetan gertatzen den beste edozein aldaketa ere jakinarazi beharko da, gehienez ere hamabost eguneko epean.

g) Animalia zikiratu edo antzutu dela jakinarazi beharko dute, hala jabeak eskaturik gertatzen denean nola administrazio nahiz epaitegiko

en caso de que tras la correspondiente inspección, se compruebe que el propietario/a o tenedor de un animal potencialmente peligroso carece de alguno de los requisitos, se considerará que no tiene licencia para la tenencia del animal y se iniciaran las acciones oportunas.

Artículo 40. Obligaciones de los propietarios/as, criadores/as y tenedores/as de animales potencialmente peligrosos.

Los propietarios/as, criadores/as y tenedores/as de animales potencialmente peligrosos deberán cumplir con las siguientes obligaciones:

a) Obtener la licencia para la tenencia de un animal potencialmente peligroso en los plazos que se señala en esta ordenanza.

b) Mantener los requisitos para obtener la licencia que se menciona en el apartado 2 del articulo 44 de esta ordenanza y comunicar la perdida de alguno de ellos de forma inmediata.

c) Inscribir en el registro cada animal potencialmente peligroso que tengan o posean, dentro de los plazos que se señalan en esta ordenanza.

d) Comunicar al Ayuntamiento el robo o pérdida del animal en un plazo de cinco días desde que se produzca el hecho, así como la cesión, venta o muerte en el plazo de quince días, indicando su identificación.

e) Si, en el momento de adquirir el animal éste ya estuviera censado por un anterior propietario/a, el nuevo propietario/a, antes de la adquisición, deberá estar en posesión de la licencia de tenencia de animales potencialmente peligroso y comunicar al Ayuntamiento, en el plazo máximo de cinco días desde su adquisición, el cambio de titularidad del animal.

f) En todo caso, deberá comunicarse cualquier otra variación en los datos del registro en un plazo no superior a quince días.

g) Deberán comunicar la castración o esterilización del animal si ésta se produce bien a petición del propietario/a o por mandato o

agintariaren ebazpen edo aginduaren ondorioz egiten bada.

resolución de la autoridad administrativa o judicial.

h) Arriskugarri gerta daitezkeen animalien erregistroan aurkeztu beharko dituzte, urtea amaitu baino lehen, albaitariaren urteroko azterketa egiaztatzen duen agiria, arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko gaitasun fisikoa eta psikologikoa erakusten duen ziurtagiria, eta mota honetako animaliak edukitzeak dakartzan arriskuetatik babesteko formalizatzen den aseguruaren nahiz erantzukizun zibileko sariaren kopia konpultsatuak.

h) Deberán presentar en el registro municipal de animales potencialmente peligrosos, antes del final de cada año el certificado correspondiente a la revisión veterinaria anual, el certificado de capacidad física y aptitud psicológica para la tenencia de animales potencialmente peligrosos, así como copia compulsada del seguro y de la prima de responsabilidad civil que se formalice para cubrir los riegos derivados de la tenencia de este tipo de animales.

i) Arriskugarri gerta daitekeen animalia bat Berara ekartzen bada, denbora mugarik gabe edo hiru hilabeterako baino gehiagorako, jabea beharturik dago arriskugarri gerta daitezkeen animalien erregistroan inskribatzera. Animaliaren egonaldia hiru hilabetetik beheitikoa bada, edukitzaileak egiaztatu beharko du bere ohiko bizilekuan betetzen duela arriskugarri gerta daitezkeen animalien gaineko araudia, eta higiene nahiz osasun aldetik edo herritarren segurtasunerako neurri egokiak hartu beharko ditu.

i) El traslado de un animal potencialmente peligroso a Bera, sea de carácter permanente o por periodo superior a tres meses, obligará a su titular a efectuar las inscripciones oportunas en el registro municipal de animales potencialmente peligrosos. Si la estancia del animal es por periodo menor a tres meses, quien lo posea deberá acreditar el cumplimiento de la normativa vigente sobre animales potencialmente peligrosos en su lugar habitual de residencia y adoptar las medidas higiénico-sanitarias y de seguridad ciudadana adecuadas.

j) Oro har, animaliak edukitzeko beharkizun guztiak bete beharko ditu.

j) En general deberán cumplir con todas las obligaciones relacionadas con la tenencia de animales.

k) Betebehar horietarako epea kasu bakoitzean zehaztuko da, eta, eperik zehazten ez bada, hamabost egunekoa izanen da.

k) El plazo para cumplir estas obligaciones es el que se señale en cada supuesto y, en el caso de que no se haya previsto un plazo concreto, será de quince días.

41. artikulua. Erregistroa.

Artículo 41. Registro.

Arriskugarri gerta daitezkeen animalien jabeek, Erregistroan sartu nahi badituzte, Berako Udalari jakinarazi beharko dizkiote honako datu hauek:

Quienes posean animales potencialmente peligrosos deberán comunicar al Ayuntamiento de Bera para su inscripción en el registro los siguientes datos:

a) Animaliaren espeziea.

a) Especie de animal.

b) Animaliaren identifikaziorako zenbakia, hala behar badu.

b) Número de identificación animal si procede.

c) Arraza. Gurutzatu ondoko lehenbiziko belaunaldikoa bada, jatorriko arrazak aipatuko

c) Raza. En caso de cruce de primera generación, se especificarán las razas de procedencia.

dira.

d) Sexua. Erreseina edo erreseina erdia.

e) Jaioteguna.

f) Animaliaren ohiko bizilekua, gizakiekin batera edo bestela biziko ote den zehaztua, alegia, zaindari, babeske edo beste eginkizun bat ote duen.

g) Jabearen izena, helbidea eta NANa.

h) Animaliaren haztegiaren edo sorlekuaren datuak.

i) Albaitari kolegiatu baten urteroko azterketak, zeinetan egiaztatuko baita animalia osasunez nola dagoen, bereziki arriskugarria bihurtuko duen eritasun edo nahasterik ez duela, ez eta borroketan nahiz bestelako jarduera debekatuetan erabili ondoko lesio edo orbainik ere.

j) Hezi duten zentroko datuak, halakorik bada.

k) Eraso kasuak.

l) Mikrotxip identifikagarria paratua duela dioen agiria.

Datu horiek denak erregistroan sartuko dira eta aldaketarik gertatzen bada, jabeak haren berri eman beharko du, erregistroan sartu behar den aldaketa gertatu ondoko hamabost eguneko epean, eraso kasuetan izan ezik, halakoetan berehala jakinarazi behar baita.

42. artikulua. Segurtasun neurriak.

1. Eremu publikoetan, higiezin kolektiboetako eremu komunetan, eta, oro har, erabilera publikorako diren toki eta eremuetan, kapitulu honetan aipatzen diren zakurrak gehienez ere bi metroko luzera duen katearekin edo uhal luzaezinarekin lotuta eta muturrekoa paratua dutela (homologatua eta zakurraren arrazari egokitua) eramanen dira. Pertsona batek ez du inoiz zakur hauetako bat baino gehiago eramanen eta adin txikikoek inola ere ez.

d) Sexo. Reseña o media reseña.

e) Fecha de nacimiento.

f) Domicilio habitual del animal, especificando si está destinado a convivir con los seres humanos o, si por el contrario, tiene finalidades distintas, como la guarda, protección u otra que se indique.

g) Nombre, domicilio y DNI del propietario/a.

h) Datos del establecimiento de cría o de procedencia.

i) Revisiones veterinarias anuales ante profesional colegiado que acredite la situación sanitaria del animal, la inexistencia de enfermedades o trastornos que lo hagan especialmente peligroso, así como la ausencia de lesiones o cicatrices relacionadas con la utilización del animal en peleas u otras actividades prohibidas.

j) Datos del centro de adiestramiento, en su caso.

k) Incidentes de agresión.

l) Acreditación de que lleva instalado un microchip identificativo.

Todos estos datos quedarán recogidos en el registro y su titular deberá comunicar cualquier variación de los mismos en el plazo de quince días desde que se haya producido el cambio del dato que proceda registrar, excepto en los incidentes de agresión en que la comunicación será inmediata.

Artículo 42. Medidas de seguridad.

1. En las vías públicas, en las partes comunes de los inmuebles colectivos, en los lugares y espacios de uso público en general, los perros a que hace referencia este capitulo, deberán ir atados, con cadena o correa no extensible de menos de dos metros de longitud y provistos del correspondiente bozal homologado y adecuado a su raza, sin que pueda llevarse más de uno de estos perros por persona y en ningún caso pueden ir conducidos por menores de edad.

2. Arriskugarri gerta daitezkeen zakurretako instalazioek ezaugarri hauek izan beharko dituzte, animaliak handik atera eta hirugarrenei kalterik egin ez diezaieten:

a) Hormek eta hesiek behar adinako altuera eta sendotasuna izan beharko dute. Orobat, tinko egon beharko dute, animaliaren pisuari eta presioari eusteko.

b) Instalazioetako ateek inguruaren gainerakoa bezain sendoak eta eraginkorrak izan beharko dute, eta haien diseinuaren bidez saihestu beharko da animaliek segurtasun mekanismoak erauzi edo ireki ahal izatea.

c) Barrutiak behar bezala seinalatua egon beharko du, mota horretako zakurrak daudela ohartaraziz.

43. artikulua. Debekuak

Abenduaren 24ko 50/1999 Legean aipatzen direnez gainera, honako hauek ere debekaturik daude:

1. Arriskugarritzat hartzen den animalia muturrekorik gabe ibiltzea eremu publikoan edo lizentziarik gabeko lagun batek daramala.

2. Uztea, esku hartuz edo esku ez hartzeagatik, arriskugarri gerta daitekeen animaliak eraso egin diezaien pertsonei edo beste animalia batzuei, edota kalte, bestela, edozein ondasuni, hala eremu publikoan nola leku pribatuetan, erasoaren unean edo aurretik halakorik ez gertatzeko behar diren neurriak hartu gabe.

3. Arriskugarria gerta daitekeen animalia bi metrotik gorako kate edo uhalarekin lotu gabe eramatea.

4. Lagun bakarrak arriskugarria gerta daitekeen zakur bat baino gehiago eramatea.

VII. KAPITULUA

Arau-hausteak eta zehapenak

2. Las instalaciones que albergan a los perros potencialmente peligrosos deben tener las siguientes características, a fin de evitar que los animales salgan de las mismas y cometan daños a terceros:

a) Las paredes y vallas deben ser lo suficientemente altas y consistentes y deben estar fijadas a fin de soportar el peso y la presión del animal.

b) Las puertas de las instalaciones deben de ser tan resistentes y efectivas como el resto del entorno y deben diseñarse para evitar que los animales puedan desencajar o abrir ellos mismos los mecanismos de seguridad.

c) El recinto debe estar convenientemente señalizado, con la advertencia de que hay perros de este tipo.

Artículo 43. Prohibiciones

Además de las señaladas en la Ley 50/1999, de 24 de diciembre, queda expresamente prohibido:

1. Que el animal considerado potencialmente peligroso circule por espacio público sin bozal o conducido por una persona sin licencia.

2. Permitir, por acción u omisión, que el animal potencialmente peligroso pueda agredir a personas, atacar a otros animales o atentar contra cualquier bien, tanto en la vía pública como en espacios privados, sin que se adopten con antelación y/o en el momento de la agresión las medidas precisas para neutralizar dichas acciones.

3. Conducir al animal potencialmente peligroso sin ser atado mediante cadena o correa extensible de más de dos metros.

4. Conducir más de un animal potencialmente peligroso de la especie canina por la misma persona.

CAPITULO VII

De las infracciones y sanciones

44. artikulua. 1. Ordenantza honi dagokionez, lege hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Artículo 44.1. A los efectos de esta Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves.

2. Hauek dira arau-hauste arinak:

2. Son infracciones leves:

a) Lagun egiteko animalia bat erroldatu gabe edukitzea 7/1994 Foru Legearen 10. artikuluan agindutakoaren kontra.

a) La posesión de un animal de compañía no censado de acuerdo con el artículo 10 de la Ley Foral 7/1994.

b) 7/1994 Foru Legeak agintzen dituen artxibo edo erregistroak ez eramatea, edo osatu gabe eta eguneratu gabe eramatea.

b) No llevar los archivos o registros requeridos por la Ley Foral 7/1994 así como llevarlos incompletos o no puestos al día.

c) Lagun egiteko animaliak 14 urtez beherakoei edo ezinduei eskualdatzea, guraso-agintea, babesa edo zaintza dutenen baimenik gabe.

c) La transmisión de animales de compañía a los menores de 14 años y a incapacitados, sin la autorización de quienes tengan la patria potestad, tutela o custodia.

d) Lagun egiteko animalia bat oparitzea ordenantza honek edo, bestela, 7/1994 Foru Legeak xedatzen duenaren kontra.

d) La donación de un animal de compañía en contra de lo dispuesto en esta Ordenanza o en su defecto lo dispuesto en la Ley Foral 7/1994.

e) Abandonatuta dauden animaliei jaten ematea.

e) El suministrar comida a los animales que permanezcan en situación de abandono.

f) Animalien identifikazioari buruzko araudia ez betetzea edo identifikaziorik ez izatea.

f) El incumplimiento de la normativa sobre identificación de animales o la no posesión de la identificación.

g) Albaitariaren kontrolik gabe txertatzea.

g) La vacunación sin control veterinario.

h) Zakurrak hiriko eremu publikoetan kate edo uhalik gabe eramatea.

h) Llevar perros en espacios públicos urbanos sin ser conducidos mediante correa o cadena.

i) Etxeko animalien gorozkiak oinezkoen tokietan bildu gabe uztea.

i) Ensuciar y no limpiar las deyecciones de los animales de compañía en los espacios públicos.

j) Hiriko kaleetan basa-espezieekin ibiltzea, etxekotuak badira ere.

j) Circular por vías urbanas con especies salvajes incluso domesticadas.

k) Bidaiarien garraio publikorako zerbitzuetan animaliekin bidaiatzea, horretarako eremu berezirik ez badute.

k) Viajar con animales en servicio público de transporte de viajeros que no disponga de espacio destinado para ello.

l) Ikastetxe, igerileku, ospitale eta eraikin publikoetan animaliekin sartzea.

l) Entrar con animales en centros de enseñanza, piscinas, hospitales y edificios públicos.

m) Noizbait erasoak eginak dituzten zakurrak muturrekorik gabe eramatea.

m) No portar bozal aquellos perros que anteriormente han causado agresiones.

n) Ordenantza honetako 35. artikuluan ezarritako eginbeharra ez betetzea.

n) El incumplimiento de lo preceptuado en el artículo 35 de esta Ordenanza.

ñ) Behar besteko baliabiderik ez jartzea animalia etxetik edo etxebizitzatik arduradunik gabe atera dadin eragozteko.

ñ) El no articular los medios necesarios para impedir que el animal salga del domicilio o vivienda sin ser conducido por persona responsable alguna.

o) Animaliaren jabea, administrazio-zehapenaren erantzulea identifikatzeko behar bezala eskatu eta hala egiten ez badu.

o) El propietario de animal que, debidamente requerido para ello, no identifique al poseedor responsable de la infracción administrativa.

p) 50/1999 Legearen 12.4 artikulua ez betetzea, arriskugarri gerta daitezkeen animaliei buruzkoa baita artikulu hori.

p) El incumplimiento de lo previsto en el artículo 12.4 de la Ley 50/1999, respecto de los animales potencialmente peligrosos.

q) Ordenantza honetako edozein xedapen ez betetzea, larriak edo oso larriak direnak izan ezik.

q) El incumplimiento de cualquier disposición de esta ordenanza que no tenga la calificación de grave o muy grave.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

3. Son infracciones graves:

a) Animaliak duten mantenurik gabe edukitzea.

a) El mantenimiento de los animales sin la alimentación necesaria.

b) Animaliak behar bezalako higiene eta osasun baldintzarik ez duten instalazioetan edukitzea, edo higiene-osasun baldintza txarretan.

b) El mantenimiento de los animales en instalaciones inadecuadas desde el punto de vista higiénico-sanitario, o en condiciones higiénico-sanitarias indebidas.

c) Animaliak zikiratzea, mutilatzea eta hiltzea inongo albaitariren kontrolik gabe edo 7/1994 Foru Legean finkatutako baldintza eta betebeharren kontra.

c) La esterilización, la práctica de mutilaciones y el sacrificio de animales sin control veterinario o en contra de las condiciones y requisitos establecidos en la Ley Foral 7/1994.

d) Animaliak ez txertatzea edo osasun agintariek nahitaezkotzat deklaratu dituzten tratamentuak ez ematea.

d) La no vacunación o la no realización a los animales de tratamientos declarados obligatorios por las autoridades sanitarias.

e) Lagun egiteko animaliak denbora batez edukitzeko instalazioen gainean 7/1994 Foru Legeko II. tituluko III. kapituluan finkatu diren baldintza eta eginbeharrak ez betetzea.

e) El incumplimiento de las condiciones y requisitos establecidos en el Capítulo III del Título II de la Ley Foral 7/1994 para las instalaciones destinadas al mantenimiento temporal de animales de compañía.

f) Indarra duen araudiaren kontra, animaliak saltzea.

f) La venta de animales contraviniendo la normativa vigente.

g) Usakumeei tiro egiteko saioak antolatzea, edo jarduera hori praktikatzea, aurrez administrazioaren baimenik izan gabe edo haren zehaztapenen kontra.

g) La organización y, en su caso, práctica del tiro al pichón sin autorización administrativa previa o en contra de las determinaciones de la misma.

h) Zinema nahiz telebistarako animaliekin eszenak filmatzea, baldin ankertasuna, tratu txarrak edo sufrimendua ekartzen badiete, administrazioaren aldez aurreko baimenik izan gabe.

h) La filmación de escenas con animales para cine o televisión que conlleven crueldad, maltrato o sufrimiento sin la correspondiente autorización administrativa previa.

i) Animaliak laborategi edo kliniketara eramatea, indarra duen araudiko baldintzak bete gabe.

i) La transmisión de animales a laboratorios o clínicas incumpliendo los requisitos previstos en la normativa vigente.

j) Egoitza pribatuetan 7/1994 Foru Legeak eskatzen dituen albaitari zerbitzuak ez izatea.

j) La inexistencia en los centros privados de los servicios veterinarios que la Ley Foral 7/1994 exige.

k) Animalia bizkarroidunak edo erituak saltzea, edo gaitzik ez dutela ziurtatzeko albaitari agiririk gabe.

k) La venta de animales con parásitos o enfermos o sin certificado veterinario acreditativo de no padecer enfermedades.

l) Osasun zerbitzu ofizialei aditzera ez ematea nahitaez deklaratu beharreko gaitzak.

l) La no comunicación a los servicios sanitarios oficiales de las enfermedades cuya declaración resulte obligatoria.

m) Elikagaiak egin, erabili edo biltegiratzen diren tokietan animaliekin sartzea.

m) Entrar con animales en locales de fabricación, manipulación o almacenamiento de alimentos.

n) Behin eta berriz enbarazu edo gogait egitea.

n) La producción de molestias reiteradas

o) 50/1999 Legearen 13.2 artikuluan ezarritako arau-hausteak, arriskugarri gerta daitezkeen animaliei buruzkoa baita artikulu hori.

o) Las infracciones establecidas en el artículo 13.2 de la Ley 50/1999, respecto de los animales potencialmente peligrosos.

4. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

4. Son infracciones muy graves:

a) 7/1994 Foru Legearen 4. artikuluan xedatzen denaren kontrako jarduerak antolatu eta egitea, baita haien publizitatea ere.

a) La organización, publicidad y en su caso celebración de actividades que contravengan lo dispuesto en el artículo 4 de la Ley Foral 7/1994.

b) Animalien kontra ankerkeria, tratu txarra eta eraso fisikoak erabiltzea.

b) El ensañamiento, maltrato y agresiones físicas a los animal.

c) Animalia abandonatzea, bizirik nahiz hilik.

c) El abandono del animal, tanto vivo como muerto.

d) Alferrikako sufrimendua edo kaltea eragin diezaieketen gaiak ematea.

d) El suministro de sustancias que puedan causarles sufrimientos o daños innecesarios.

e) Zakurrak beti loturik edukitzea.

e) Mantener permanentemente atados los perros.

f) Arriskugarritzat hartzen den animalia muturrekorik gabe ibiltzea eremu publikoan edo

f) Permitir que el animal considerado potencialmente peligroso circule por espacio

lizentziarik gabeko lagun batek daramala.

público sin bozal o conducido por una persona sin licencia.

g) Uztea, esku hartuz edo esku ez hartzeagatik, arriskugarri gerta daitekeen animaliak eraso egin diezaien pertsonei edo beste animalia batzuei, edota kalte, bestela, edozein ondasuni, hala eremu publikoan nola leku pribatuetan, erasoaren unean edo aurretik halakorik ez gertatzeko behar diren neurriak hartu gabe.

g) Permitir, por acción u omisión, que el animal potencialmente peligroso pueda agredir a personas, atacar a otros animales o atentar contra cualquier bien, tanto en la vía pública como en espacios privados, sin que se adopten con antelación y/o en el momento de la agresión las medidas precisas para neutralizar dichas acciones.

h) Arriskugarritzat har daitekeen animaliaren bat eramatea 2 metroko katerik gabe dela eremu publikoan dela ordenantza honetan baimendutako guneetatik at.

h) Portar en la vía Pública y / o fuera de las zonas autorizadas por esta Ordenanza un animal considerado como potencialmente peligroso sin ser conducido por cadena de menos de 2 metros.

i) 50/1999 Legearen 13.1 artikuluan ezarritako arau-hausteak, arriskugarri gerta daitezkeen animaliei buruzkoa baita artikulu hori.

i) Las infracciones contempladas en el artículo 13.1 de la Ley 50/1999, respecto de los animales potencialmente peligrosos.

45. artikulua. 1. Zehapenak.

Artículo 45. Sanciones.

1. Arau-hauste arinek 60tik 150 eurora bitarteko isunak izanen dituzte zehapen; larriek 151tik 600 eurora bitartekoak, eta oso larriek 601etik 3.000 eurora bitartekoak.

1. Las infracciones leves serán sancionadas con multa de 60 euros a 150 euros; las graves, con multa de 151 euros a 600 euros y las muy graves, con multa de 601 euros a 3.000 euros

50/1999 Legearen 13.5 artikuluan ezarritakoari lotuko zaio, arriskugarri gerta daitezkeen animaliei buruzko zehapenetarako.

Se estará a lo dispuesto en el artículo 13.5 de la Ley 50/1999 para las sanciones relativas a animales potencialmente peligrosos.

2. Zehapenak ezartzerakoan honako irizpideak hartuko dira kontuan, isunen zenbatekoa graduatzeko eta zehapen osagarriak ezartzeko:

2. En la imposición de las sanciones se tendrán en cuenta, para graduar la cuantía de las multas y la imposición de las sanciones accesorias, los siguientes criterios:

a) Arau-hausteak gizartean duen eragina eta kaltea.

a) La trascendencia social y el perjuicio causado por la infracción cometida.

b) Irabazteko asmo bidegabekorik izan den eta arau-haustean zer etekin atera den.

b) El ánimo de lucro ilícito y la cuantía del beneficio obtenido en la comisión de la infracción.

c) Ankerkeriarik izan den animaliarekin.

c) El ensañamiento con el animal.

d) Arau-hausteak errepikatu edo horietan berrerori ote den.

d) La reiteración o reincidencia en la comisión de infracciones.

Berriz ere araua hautsi dela ulertuko da, baldin eta animaliari edo animaliaren edukitzaileari zehapena ezarri bazaio bi aldiz gutxienez, animaliak edukitzeari buruzko araudia

Existirá reincidencia cuando el animal o tenedor de un animal haya sido sancionado por infracción de normativa relacionada con la tenencia de animales al menos dos veces.

hausteagatik.

Zehapena mailarik gorenean ezarriko da urtebete natural berean arau-haustea berriz gertatzen bada.

La sanción se impondrá en su grado máximo cuando en el plazo de un año natural se haya producido reincidencia.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Lehena._Ordenantza honen IV. kapituluak arautzen dituen jardueren titularrek urtebeteko epea dute, honako hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratzen den egunetik aitzina, arau honetan ezarritakoari egokitzeko.

Primera._Los titulares de las actividades reguladas por esta Ordenanza en su Capítulo IV, dispondrán de un plazo de un año a partir de la fecha de publicación el BOLETIN OFICIAL de Navarra para su adecuación a lo establecido en la presente norma.

Bigarrena._Arriskutsu gerta daitekeen animalia bat lehendik dutenek sei hilabeteko epea dute, Ordenantza honek indarra hartzen duenetik, aipatu baldintzak bete eta lizentzia eskuratzeko.

Segunda._Quienes ya estén en posesión de un animal potencialmente peligroso dispondrán de un plazo de seis meses, desde la entrada en vigor de esta ordenanza para cumplir los requisitos a que ésta obliga y obtener la licencia correspondiente.